

2022

AURREKONTUA

Parte hartu!

¡Participa!

 **BERMEOKO
UDALA**

2022ko AURREKONTUAK:
Prozesu parte-hartzailearen EMAITZAK

1.- Datu orokorrak:



Sarrera:

2022ko aurrekontuak bideratzerakoan, eta horien lanketari hasiera eman aurretik, mandatu planeko helburuekin lerrokatuta, herritarren pertzepzio, nahiak eta ikuspegia jaso dira, aztertu eta kontuan izateko, onarpena baino lehen.

2021eko aurrekontu partehartzaileen prozedura aztertu eta ondorioak hausnartu dira 2022ko prozedura martxan jartzeko.

Erreztasunak eskeini eta aukerak ugaritzeko helburuarekin, sarbide zuzen baten bitartez proiektuak lehenetsi eta proposamenak egiteko aukera ezarri da aurton arrakasta nabarmenaz.

Prozedura:

-Herriko etxebizitza guztietara parte hartzerako agiriak bialdu dira, Berhaz Bulegoan, Kultur Etxean zein Liburutegian jarritako kutxetan jasotzeko.

-Email bidez: pdf editableen aukerarekin, eta baita agiria bete ostean argazki bat bideratuta: partehartzea@bermeo.eus helbidera.

-Aurton, sarbide zuzen baten bitartez, proiektuen garrantzia jaso eta proposamenak eginda zuzenean bideratzeko aukera eskaini da.

1.- Datu orokorrak:



Jasotako inkesta kopurua:

Guztira, **728 erantzun** jaso dira, herriko gunee eta adin guztietako erantzunekin, honako sailkapena jarraituta:

KUTXETAN: 201

- LIBURUTEGI **78**
- BERHAZ **66**
- KULTUR ETXEA **57**

EMAILEZ: 7

SARBIDE ZUZEN BIDEZ: 520

Jasotako inkesta kopuruaren azterketa:

2022rako aurrekontuetarako parte hartzea, oso arrakastatsua izan da.

2021ean **101 proposamen** jaso baziren, **aurton kopurua bost aldiz handiagoa** izatera heldu da.

1.- Datu orokorrak:



Jasotako inkesta kopuruaren azterketa:

A.- Kutxetako aukera aurton bikoiztu egin da, izan ere 2021eko aurrekontuetarako 93 erantzun jaso ziren eta aurton, 201 izan dira aurkeztutakoak.

2020n **Berhaz bulegoan** jaso zen agiri kopuru handiena (**40 agiri**ekin), aurton gora egin du kopuruak **66 ra arte**, baina **Liburutegia** izan da herritarren gehiengoak aukeratu duen gunea: **31 agiri 2020an eta 78 aurton**.

Kultur Etxeko agiri kopurua asko igo da aurten, 2020ko **22 agiritik aurtengo 57ra**.

B.-Email bidezko aukera kopuru aldetik ia mantendu egin da beherakada txiki batekin, seguruenik sarbide zuzenaren aukeragatik.

2020an 8 inkesta jaso ziren bide honetatik eta **aurton 7** izan dira jasotakoak.

C.-Sarbide zuzen bidezko aukera: **Herritarren gehiengoak** aukeratu duen bidea google-form bidezko sarbide zuzena izan da eta modu errez baten herritarren parte handi baten hitza jasotzea lortu da, batez ere 45 urtetik beherakoena izan da aurreko urtean ez bezala, nagusitu den ahotsa.


[illegible]

2.- Parte Hartzaileen PROFILA:




Sexua:

Parte hartzaileen gehiengoa emakumezkoa izan da: % 52ko portzentaiarekin. Aurreko urtearekiko jaitsi egin da portzentaia: la %59tik (58,8) 52ra eta gizonezkoen kopuruak gora egin du, parte hartzea parekatuz.



Adina:

Adin tarte ugariena pasadan urtean ez bezala, 45 urtetik beherako adin tartean kokatzen da. 2020an, 46-65 urte bitartean zegoen parte hartzaileen erdia baino gehiagoko adin tarte (%51); aurton aldiz, gazteak ugaritu eta 45 urtetik beherako tarte da nagusiena.




2.- Parte Hartzaileen PROFILA:



Gunea:

Bizkaiko Jaurerrian pilatzen da parte hartzaileen gehiengoa, Askatasun Bidea eta Zubiaur tar Kepa horren ondoren.

2020an erantzun zutenen gehiengoak, Zubiaur tar Kepan kokatzen zuen bere bizilekua.



3.- Arloen lehenespen orokorra:




Parte hartzaileen gehiengoak, **Bakarrik bizi diren adineko pertsonen jarraipenerako programa** lehenestasunezko eremu moduan balioztatzen du.

Honen ostean Herriko gune desbardinetan asfaltatze lanak eta Herri eskola eta Benito Barruetako patioak zabaldu eta aisialdiko gunea egokitzea dira hurrenez hurren, herritarrek lehenetsi dituzten egin beharrekoak.

Beste bi gai garrantzitsu moduan agertzen dira baita ere honakoa hauek:

- San Martinen aire zabaleko kirol gunea sortu
- Lamerako lurzorua konpondu



4.- Adinaren arabera lehenespena




Adin tarte guztietan, lehenetasun handiena **Bakarrik bizi diren adineko pertsonen jarraipenerako programak lortzen du.**

45 urtetik beherakoen parte hartze handiak zutabe urdinak beste guztien ganetik egotea dakar baina **tendentzia berdina da** <45 eta 46-65 urte bitarteetan, **bi kasutan ezik:**

1.- web orriaren proiektuan: 46 urtetik gorakoek 45etik beherakoek baino garrantzitsuago ikusten dute pareko tendentzia edo ikuspegia autsiz.

2.- San Martinen aire zabaleko kirol gunea sortzea, 45 urtetik beherakoek asfaltatze lanen aurretik jartzen dute.

>65 urteko adin tarteak, aurrekoekiko desberdintasun handiagoak ditu bere lehenespenean, aipagarriena, beste adin tarteak ez bezala, garrantzi nabarmena ematen diola **Lameran komun publiko barria jartzeari**, hirugarren lehentasun moduan finkatuta.



5.- Sexuaren araberako lehenespena:



Sexuaren arabera ere, desberdintasunak daude lehenesterakoan. Lehenengo lehenespena bat dator kasu guztietan eta **Bakarrik bizi diren adineko pertsonen jarraipenerako programa** da nagusi puntuaketa altuenarekin.

Bestalde hurrengo lehenespenetan:

Gizonezkoek honako hurrenkera jarraitzen dute:

1. Herri eskola eta Benito Barruetako patioak zabaldu eta aisialdiko gunea egokitu
2. San Martinen aire zabaleko kirol gunea sortu
3. Herriko gunen desbordinetan asfaltatze lanak


Emakumezkoek aldiz:

1. Herriko gunen desbordinetan asfaltatze lanak
2. Lamerako lurzorua konpondu
3. Herri eskola eta Benito Barruetako patioak zabaldu eta aisialdiko gunea egokitu.

5.- Sexuaren araberako lehenespena:



Gizonezkoen balioztapenen kasuan, San martinen aire zabaleko kirol gunea sortzeko proiektua, modu nabarmenenean, emakumezkoek duten lehentasunetatik alderatzen da eta lehentasun askoz handiago ematen diote gizonek emakumeekiko.



Ondorioak:

Parte hartze kopuruak nabarmen egin du gora eta aurreko urteko datuak boskoiztu dira. Igoera hau ohiko bideetan eman da, kopuruak bikoiztuta baina, google form bidezko aukerak, parte hartzeko modua asko erraztu du eta 45 urtetik beherako adin tartean nabarmen eragin du.

Kutxa bidezko parte hartzea aukeratu dutenen gehiengoak **Liburutegia** erabili du, agiria bueltatzeko gune moduan.

Sexu aldetik gizonen parte hartzea igo da eta parekotasun bat lortu da aurtengo parte hartze prozesuan.

45 urtetik beherako herritarren parte hartzea, oso indartsua izan da %54ko zifrekin; aurreko prozesuan, **gazteen presentzia areagotzeko beharrizana** antzeman zen eta aurtengo prozesuan bermatu ahal izan da.

Bakarrik bizi diren adineko pertsonen jarraipenerako programak lehentasun bat dira, genero eta adin tarte guztiak bat etorriz.

Ondorioak:

Asfaltatze lanak eta Herri eskola zein Benito Barruetako **patioak zabaltu eta aisialdiko gunea egokitzea** ere indartsu lehenetsi dituzte herritarrek.

Gehien errepikatzen diren proposamenak honakoak dira: (hurrenkera hautazkoa da ez dago garrantzia edo kopuruaren arabera antolatuta)

1.- TXAKURRAK: Txakurren kudeaketa zorrotzagoa, herria gorotz eta txizatetik libratzea, gune zehatzen beharrizana, eragiten duten zikinkeriarri irtenbidea, tasa baten beharrizana eta kaleen hondatze edo narriadura saihesteko garbitasuna indartzea, isunen beharrizanarekin batera proposatzen dira.

2.- OSASUN ZENTROA: Herrian Osasun Zentro integral baten beharrizana adierazten dute herritarrek, espezialista gehiago eta herritik irten gabe beharrizanei irtenbidea emateko. Farmaziak modu berean herritik irten gabe izateko proposamenak ere lotzen zaizkio honi.

Ondorioak:

3.- IRISGARRITASUNA: Igogailuak eta eskailera mekanikoak ezartzea, muga arkitektonikoen desagerpena, espaloien egokitzapena eta baranda desberdinen ezarpena dira proposamenak arlo honetan: **AUZOAK** herriarekin lotzeko baliabideak, Frantzun Atxak eta Baztarre igogailuz lotu, Bizkaï burura arte Ataldetik eskailera mekanikoak ezarri, azken finean, herriko goiko gunek (TALA, hilerria, futbol zelaia, anbulatorioa...) behekoekin lotu. Lameratxikitik San Juan portalera eskailera mekanikoak jarri, Txibitxaga inguruan arrapalen beharrizana, udal azokako arrapalean baranda jarri, Zubiaur tar Kepa eta Mikel Deuna parkea lotzen dituen eskilarak egin. Zarragoitxira igoteko eskailera mekanikoak, Zubiaur tar Kepako espaloiak zabalago egin eta 2 zenbakian dagoen semaforoa lekuz aldatu pasatzeko lekua uzteko, besteak beste.

4.-KIROL GUNEA: Kirola kalean egiteko azpiegiturak eta gune estaliak izatea, herriak dituen gune desberdinak aprobetxatuta padel instalazioak, txirrinduak garbitzeko gunea, atletismoko pista zein Hermanuetako instalazioak berreskuratzea kirolerako dira gehien proposatzen diren ekimenak.

Ondorioak:

5.- APARKAMENDUAK: Pergolako aparkamenduak seinaleztatzeko beharrezkoak eta dauden plaza libreen kudeaketa egokia proposatzen dira, herritarrei erreserbatutako aparkamenduak ezartzeko beharrezkoekin batera.

6.- GARBITASUNA: Arlo honetan bi gai nabarmendu ditu herritarrak:

- a) herriko gune guztiak modu berean garbitzeko beharrezkoak, auzo eta kale guztietara helduta. Alde Zaharreko egoera garbitasunari dagokionez indartzeko beharrezkoak azpimarratzen da.
- b) garbitzeko erabiltzen diren makinaren zarata jaisteko beharrezkoak, makina hobeak eta isilagoen beharrezkoak adierazita.

7.- BAINURAKO GUNEAK: Herriak duen orografia eta ezaugarriak aintzat hartuz, gune desberdinak, bainurako egokitzeko proposamen ugari egon dira, batik bat: Frantzun Atxetak egokitu-mareen pizina bat egin, Tonpoi eta Talape egokitu... horrekin batera, uretako jolas guneak ezartzea plazetan edo lameran.

Ondorioak:

8.- ALDE ZAHARRA: Alde zaharraren egoera hobetzeko beharrezana adierazi dute herritarrek, garbitasuna indartu, biziberritu, ekintzak programatu, itxuran eragin (lorak, muralak , iluminazioa) espaloiak kendu, benetan oinezko bilakatu, kaleak konpondu, telefono eta elektrizitate kableak lurrazpiratu, diruz lagundu eraikin zaharren mantentze eta obra beharrezanak egiten direla bermatzeko eta bizia ematen dioten denda eta komertzioak ez desagertzeko ekimenak burututa.

9.- UMEENTZAKO EKINTZAK ETA GUNE ESTALIAK, ume eta gazteen aisialdi aukerek ere proposamen ugari izan dituzte: jolas guneetako mantentze lana bermatu, ekintza desberdinak sustatu, skate park bezalako instalazioak estali, gazteleku handi baten beharrezana, Ertzila eraikina bolera bihurtu, Udalak dituen lokal hutsak umeentzako ekintzetara bideratu, Txiki-park baten beharrezana herrian...

10.- FUTBOLEKO ZELAI ARTIFISIALA: Futbol zelaiko proiektua bideratzea eta Itxasganeko futbol zelai artifizial baten beharrezana adierazi dute herritarrek.

Ondorioak:

11.-ADINEKO PERTSONEI ERREZTASUNAK: Losak konpondu, markesinak ipini, egoera ahulean daudenei jarraipen lana, ordenagailuak eskuragai tramiteak eta kontsultak egiteko, 200 metrora atsedeen hartzeko bankuak izatea eta irisgarritasunari lotutako (lehen aipatutakoak) hainbat proposamen egin dituzte herritarrek.

12.-MANTENIMENDUA: Auzoetan asfaltatze lanak, Lamera Gorri moduan ezagutzen den Gonzalo Nardiz enparantzaren konponketa lanak, Hermanuetako instalazioen mantentze eta berriztatze lanak, Txibitxaga kaleko espaloiak, Mikel Deunako jolas gunea, lorezaintzarekin erlazionatutakoak eta azken finean herriaren itxuran zein eguneroko erabileran eragiten duten hobetzeko proposamenak jaso dira.

13.- PORTUA: Ibilgailuen kudeaketa berri baten beharrezana adierazi dute herritarrek, oinezko bihurtu edo ahalik eta oinezkoena izan dadin beharrezko aldaketak sustatuta, horrekin batera *adokinen* konponketa beharra ere adierazi da.

Ondorioak:



14.- BIDE GORRIAK: Bermeo - San Juan ibilbidean, Artike auzora doan errepidean zein Talatik Aritxatxura doan tartean, bide gorriak egiteko proposamenak igorri ditu herritarrak.

15.- HERRIRAKO PROIEKTU ETA ERRONKA BERRIAK: Aurrekoak ez bezala, errepikatu ez diren proiektu eta erronka zehatzak ere adierazi izan dituzte zenbait herritarrek eta horiek guztiak ere aztertu ditu Udalak, 2022ko aurrekontuan, aurreko proposamenekin batera izan dezaketen txertaketa balioztatzeko.

Bermeon, 2021eko urriak 11